

Donamaria

Aurkibidea

Udalerria: Donamaria

Sarrera



Malerreka eskualdeko udalerria, Nafarroako ipar-mendebaldean kokatua. Artze, Askarraga eta Igurin auzoek osatzen dute herria.

- **Biztanleak:** 456
- **Euskaldunak:** %93,48

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **6**
- Zintak: **7**
- Pasarteak: **0**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **0**

Proiektuak

- Diasporako Ahotsak
- Lekarozko institutuko kantagintzako ikasleak

Hizlariak

Javier Alzugaray (1947)



Gaztelun sortua, aita bertakoa zuen eta Urroztik hara joandakoa. Sei senidetan gazteena zen Javier (beste hiru umetan hil ziren). Baserritik bizi ziren: behiak, txerriak... Oso gutxi ibili zen eskolan. Egur botatzen ibili zen Iparraldean. 1965an, 18 urterekin, Ameriketara joan zen artzain, Bakersfieldera (Kalifornia); anaia zaharragoa joan zen aurretik eta beste bi ondotik. Sei urte egin zituen artzain eta gero San Rafaelera joan zen, baratze-lanera. Lau urteren buruan Euskal Herrira joan zen, bertan bizitzeko asmoz. Lesakako auto pieza lantegian aritu zen lanean bi urtez, gustatu ez, eta Ameriketara itzultzea erabaki zuen. San Franciscora. Baratze-negozioa erosi zuen bertan. Guatemalako emakume batekin ezkondu zen eta alaba bat izan zuen. San Franciscoko euskal etxeko kide aktiboa da. Mus txapelketetan aritzen da.

Olatz Garmendia (1948)



Azpeitian jaio zen. 15 urtera arte ibili omen zen eskolan, mojekin. Eskolatik irteerakoan denda batean lan egin zuen eta irakasle moduan ere jardun zuen denbora batez. 19 urterekin Donamariako karmeldarren komentura joan zen moja eta bertan bizi izan da ordutik. Donamariar sentitzen dela dio. [Engraxi Mendiola](#) moja urretxuarrarekin batera egin zioten elkarrizketa Lekarozko institutuko ikasleek. Argazkian eskubikoa da Olatz.

Seberiano Lazkano Uztariz (1942)

Komizko Bordan jaioa, Gaztelun (Donamaria). Aita Aranazkoa zuen eta ama Doneztebekoa. Bederatzi senidetan zortzigarrena. Umetatik ibili zen arditan. Kontrabandoa zen diru iturri bakarra inguruetan, eta gazterik joan zen Ameriketara, Fresnora (California), artzain. Zazpi urte egin zituen mendian, ardiekin. Gero Los Angeleseko harategi batean hasi zen lanean. 15 urte lorezaintzan jardun ostean, Elkon (Nevada) hotela erosi zuen: Star hotel. Chileko emakume batekin ezkondu, eta bi seme izan zituzten. Ameriketara bizi da, Nevadan, Mindenen. Bi aldiz elkarrizketatu genuen: Euskal Herrian eta Gahnervillen.

Migel Leonis Babase (1946)

Ama Donamariakoa zuen eta aita gartzaindarra (Baztan). Ardiak eta behiak zituzten baserrian. Sei senidetan bosgarrena zen Migel. Donamariako eskolan ibili zen 14 urte arte eta ondoren urtebete Donezteben. Bi udatan mendian egin zuen lana, arbolak botatzen; Frantziara ere joan ere baso-lanetara. 1963an bere bi anaia Ameriketara joan ziren eta bera ere bai, 1966an. Fresno (California) Sagardia-Bidegarai ardi-jabeentzat artzain egon zen bost urtean. Gero Los Angelesen egin zuen lana, zazpi urtez, zeri hiltegi batean. Jatorri mexikarreko emakume batekin ezkondu zen eta hiru seme izan zituzten; banandu zirenean, bera egin zen mutikoen kargu. Lorezaintza-negozioa izan zuen 7 urtean. Theresa Zubillagarekin ezkondu zen eta beste hiru ume izan zituzten. 1983an Gardervilleira joan zen bizitzera. Esnetegi batean eta lorezaintzan ibili zen, eta 1989an Seberiano Lazkanorekin batera Elkoko (Nevada) Star Hotela erosi zuen: Elkon bizi izan zen 2004an hotela saldu zuten arte. Gero Sierra motela erosi zuen, Gardnervillen.



Engraxi Mendiola (1934)

Urretxun jaioa. Hamar senide izan ziren. Etxeko bulegoan lan egiten zuen moja sartu aurretik. 21 urterekin misiolari gisa joan zen, baina ez zen gustura egon eta bi urteren buruan etxera itzuli zen. 1967an Donamariako karmeldarren komentura joan zen moja, eta bertan bizi izan da ordutik. [Olatz Garmendia](#) moja azpeitiarrarekin batera egin zioten elkarrizketa Lekarozko institutuko ikasleek. Argazkian ezkerrekoa da Engraxi.



Asuntzion Orbegozo Arraztio (1943)

Artze auzoko Xuankenea etxean jaio zen eta bertan bizi izan da beti. Eskolara gutxi joan zen, zaharrena zelako eta etxean lagundu beharra izaten zuelako. Eskola amaitu eta gero etxean jarraitu zuen lanean. 17 urterekin ama hil zitzaizen eta anai-arreben ardura ere hartu behar izan zuen; txikienak bi hilabete zituen artean. Orduko bizimoduaren inguruko kontuak kontatu zituen Lekarozko institutuko ikasleek egin zioten elkarrizketan.



Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com